




# SL-Gi 4001

## Agorregi: burnia eta ura

*3,7 Km / 1 h 10 min*

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.

## SL-Gi 4001

### Agorregi: burnia eta ura

Naturaren indarra pertsonen beharretara moldatuta ikusiko duzue funtzionamenduan dagoen Agorregiko burdinola ezagunerako bidean. Alegia, duela lau mende martxan jarritako teknologia jasangarria. Familiarekin egiteko bide aproposa da. Lorategi Botanikoan aurkituko duzue landaretza-aberastasun handia, tokiko espezie ugarietan, baita exotikoetan ere.

En el camino de la famosa ferrería de Agorregi, que sigue en funcionamiento, se puede observar la fuerza de la naturaleza adaptada a las necesidades de las personas. Es decir, tecnología sostenible puesta en marcha hace cuatro siglos. Es un camino ideal para hacerlo en familia. El Jardín Botánico concentra un montón de especies, tanto autóctonas, como exóticas.




## Interes puntuak | Puntos de interés

a



ITURRARAN: Iturrarango Parketxea, Pagoetako Parke Naturaleko Informazio eta Interpretazio Zentroa, XVIII. mendeko jatorrizko egurrezko egitura mantentzen duen zaharberritutako baserri eder bat da. Bertan, Pagoetako ingurune fisikoa eta etnografikoa ezagutarazten laguntzen duen erakusketa iraunkorra, euskarri interaktiboak eta tailer didaktikoa daude. Baliabide horien bidez, naturaren eta gizakiaren jardueraren arteko harremanaren berri ematen zaio bisitariari.

ITURRARAN: El Parketxe de Iturraran, Centro de Información e Interpretación del Parque Natural de Pagoeta, es un hermoso y renovado caserío del S. XVIII que mantiene su estructura original de madera. Acoge una exposición permanente que muestra el medio físico y etnográfico de Pagoeta, un taller didáctico y varios soportes interactivos. Mediante esos recursos se muestra al visitante la relación entre la naturaleza y las actividades humanas.

b



IBAI ERTZEKO LANDAREDIA: Edo ibar-basoa ibaiaren ibilguaren ertzetan hazten diren zuhaitzen eta zuhaixken multzoari deritzo. Beste espezie batzuen artean, errekaren hezetasunera eta freskotasunera egokituta dauden, lizarrek eta haltzek osatzen duten irudi oparoa eta berdea ikusteko aukera dago ibilbide honetan. Munduan zehar dauden biomen sailkapenari dagokionez, ibai ertzeko landaredia da zerrendan ageri denetako bat.

VEGETACIÓN DE RIBERA: O vegetación riparia son aquellos conjuntos de árboles y arbustos que crecen en los márgenes de los cauces de los ríos. Entre otras especies, este sendero ofrece la posibilidad de ver la estampa verde y abundante que ofrecen los fresnos y los alisos adaptados a la humedad y frescura del río. En la clasificación que existe en torno a los diferentes biomas del mundo, la vegetación de ribera es una de las que aparece en la lista.

c



ERROTA: Uraren indarra aprobetxatzen zuten errotak bi motakoak izan zitezkeen elementu eragileen kokapenaren arabera: noria-errotak edo errotak. Lehenengoetan, alea ehotzen duen harria birarazten duen ardatza horizontalean jartzen da. Badakigu Euskal Herrian horrelako aparatuak egon zirela. Baina, errota gehienak ardatz bertikalekoak ziren. Errota honetan, esaera zaharra moldatuz, ibai zaharretik ogi berria datorrela esan daiteke.

MOLINO: Los molinos que aprovechaban la fuerza del agua podían ser de dos tipos en función de la disposición de sus elementos motrices: aceñas o molinos. En los primeros, el eje que gira la piedra que muele el grano se dispone en horizontal. Se tiene constancia de que este tipo de artilugios existieron en el País Vasco. Pero, los molinos mayoritarios fueron aquellos con el eje en vertical. En relación a este molino, podemos decir, modificando el viejo refrán, que: del río viejo mana pan nuevo.

d



AGORREGI: Euskal Herrian, Erdi Aroaz geroztik, ura erabili izan da energia sortzeko. Agirietan jasota dagoenez garai hartakoa zen Agorregiko burdinola, aurreneko datuek XV. mendearen hasieran kokatzen dute, eta, berori, Laurgaingo Jaunarena zen. Agorregikoa burdinola nagusi bat zen eta, bertan, burdinazko totxoak lortzen ziren, gero burdinola txikietara eramaten zirenak, bertan landuak izan zitezen.

AGORREGI: El agua se ha venido utilizando en Euskal Herria como generador de energía desde la Edad Media. Según la información recogida, la ferrería pertenece a esa época, los primeros datos la sitúan a comienzos del siglo XV, siendo el Señor de Laurgain su propietario. Era una ferrería mayor donde se conseguían los tochos de hierro que luego se llevaban a las ferrerías menores donde los forjaban.

e



LORATEGI BOTANIKOA: Iturrarango Lorategi Botanikoa Iturrarango Parketxearen inguruan dago. Momentu honetan 25 hektareako azalera du, horietatik 10 bertako landarediaz osatuak daude. Lorategian, munduan zeharreko, zuhaitz eta zuhaixken 6.000 taxon inguruko bilduma bat ikus daiteke. Horrek, atmosfera berezia eta bakarra duen eremu batean, bost kontinenteetako espezieak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Udaberrian bildumako landare berezien azoka ospatzen da.

JARDÍN BOTÁNICO: El Jardín Botánico se encuentra entorno al Parketxe de Iturraran. Tiene una superficie de 25 hectáreas, 10 de ellas con vegetación autóctona. En este momento cuenta con una colección de unos 6.000 taxones, la mayoría árboles y arbustos de diferentes lugares del mundo. Lo cual permite conocer, en un espacio con una atmósfera única y especial, especies de los cinco continentes. En primavera se realiza una feria de plantas de colección.

## MIDE

| Ingurunea / Medio | Ibilbidea / Itinerario | Desplazamendua / Desplazamiento | Ahalegina / Esfuerzo | MIDE ordutegia / Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 2 | 1 h 10 min | www.mide.montanasegura.com |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke** | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena** | **Mandabideak** | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia** | (( 112 )) | |
| El medio no está exento de riesgos | Sendas o señalización que indica la continuidad | Marcha por caminos de herradura | De 1 a 3 horas de marcha efectiva | SOS DEIAK | |

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Aisia-lekua**
Area recreativa

arazi

AIAKO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa